

ZEZEN LARRUA

(Jarraipena)

(S. Espriu-ren La Pell de brau Otsalarren euskaratua)

XXI

Sepharad-eko errotak:
ametsak poliki-poliki
egi bihurtuko dira.

Haize-errota, odol-errota:
hezurak ere ehotu behar dira
ogia ona izan dezagun.

Jaisten gara, hitzetatik,
izuaren osin sakonera:
hitz arinak jasoko gaitu
argitasun berrira arte.

Salvador Espriu aurtengo otsailaren 22an hil zen Barcelonan eta biharamunean bere gogo-minezko Arenys de Mar-go hilerrian hobiratu. G.B.

Bere heriotzarekin, Penintsula osoan gure mende honetan eman den poetarik handienetakoa joan zaigu. Katalan hizkuntzari leial eta zintzo jarraituz iraupenerako sena indarberritu zion, zapalkuntzazko urte larri haietan. Holakoa bai zen poetaren gogo:

*hitz arinak jasoko gaitu
argitasun berrira arte.*

Gure abotsen
 mailadetatik,
 zerua itzuliz
 poliki-poliki
 presondegi sakon,
 itzal itsu,
 eta bapatean
 osin izu gara.

Hitzen eskala
 goretetik,
 argia jasotzen genuen
 jadanik liberatua:
 eguna gertatzen da
 uraren gaua.

Baina hegoek
 zaindu zuten
 printze lokartua,
 denbora harrigarriaren
 amets barruan
 iraganbide zaharra,
 urrunduz, mutu
 izuaren oihuz,
 galdetzen badugu
 Sepharad-egatik.

Eta inork ezer guti eskaintzen zuen garai haietan, bere bakardadetik zuzia altxatuz guzieren argi egin zien, herri baten larri-mina agerraraziz eta kezkatzera bultzaraziz.

Zentzura garaia ziren izan ere, eta zerbait egingo bazuen sinbo-
 lojiatzeko hizkuntza berezi bat asmatu beharrean aurkitu zen, kulturaz
 jantziak zirenen aburuen bidez laster zabalkunde handia lortuz. Meta-
 fora anitzez baliatzen zen, horiek maiz sententzia zorrotzez. Horrela
 konsegitu zuen beti kritikari ozen agertzea.

Anaiarteko gerra baten minak bizi guzarako eraginda utzi zuen
 gizona. Hala ere, bere poemagintza errekonziliatzearen aldekoa da.
 Badaki

Zezenplazaren erdian oihartzunak jasotzen ditugu,
 latz eta zutoihal bihurtuz.
 Palmondopean amak epaituz
 itsasandiko gure herria.
 Iratzar, iratzar eta esan zein eskuk
 hartu lezaken bustin zahar honetatik
 agintaritza berriko makila.
 Zeren janadik inoiz ez baitu euririk egiten alor lehorretan,
 hotz izugarridun bideak jarraitzen ditugunez,
 heriotza iritsi eta denbora joana denez,
 galdetzen dizugu geroan nork gidatuko duen
 nekaturiko pausuaren beste une laburra
 Sepharad-go belaunaldietan.

*ogi lazdun luberria
 aho zaharrei ematen diena
 beti odol gustua!*

Ez dela gizakien burubidea elkar joka ibiltzea eta oihartzunez agertuko zuen:

*bakédun gizonak,
 ulertzera ahalegintzen garenok.*

Historia ondo ezagutzen zuen gizona zen Salvador Espriu eta aintzinekoen jakituria maiz hartzen zuen adibidetzat. Biblia, gizartearen esperientzia nagusitzat erabiliko zuen eta juduen alderako begirapena ez zuen ezkutatuko. Bere hizkuntza berezi hortan Espainia da Sepharad, bertako semeak izanik botreak izan ziren sepharditen ohoretan. Anaiarteko jazarpenak gorrotogarri zituen, Franco-ren jokabidea bezalatsu. Horregatik zion:

*Batuetan beharrezkoa eta nahitaezkoa da
 gizon bat herri bategatik hiltzea,
 baina sekula ez da hil behar herri guzira
 gizon bakar bategatik:
 oroi zaite beti honetaz, Sepharad.*

Gidatzeko deitzen bazaitue
 une labur batean
 belaunaldien
 milurteko pausoa,
 urrea berezi,
 ametsa eta izena.
 Baita ere ponpa
 harro hitz-hutsa
 ohorearen eta
 sabelaren lotsaz
 Egia
 derrigortuz
 hil arte
 kontsolagarrien
 laguntasunik gabe.
 Ez inoiz espero izan
 oroitzak uzterik,
 zeren zerbitzaririk
 apalenetako bat
 besterik ez zara.

Beretzat, Jainkoaren aurrean bezala, gizon guziak ziren berdinak
 eta guzien alde oiuhu egingo zuen:

*Egia esango dugu, atsedetik gabe,
 ohorez zerbitzeko, guzion oinpean.*

Holakoa genduen S. Espriu. Merezimendurik anitz zuelako ardu-
 ratu ginen bere poesiaz. Bere *Llibre de Sinera (Sinera-ko liburua)*,
 1966. urteko *Egan*-en argitaratu genuen, 40-66 orrialdeetan. Lehen sei
 orrialdeak S. Espriu eta bere poesia adieraziz. Gure eritziak ezagutu
 nahi dituenak jo dezala bertara. Gaur, Salvador betiko pausatu delarik,
 gizona eta bere obra ezagutzeko lagungarri da oraindik. Urrengo urtean,
 1967an (40-42 orr.) «Pais Basc» itzulia agerrarazi genuen. Hura zen
 orduan Euskal Herriari eskaini zion omenaldia. Gizona, edonongo gizona
 hain maite zuen poetak begiramen berezi eta maitagarria zuen Euskal
 Herriarentzat.

Ezindua
eta sufritzen duen hura
izango bai dira betiko
zure jaun soilak.
Jainkoa ezik,
guztien
oinpean
jarri zaituena.

XXV

Egia esango dugu, atsedetik gabe,
ohorez zerbitzeko, guzien oinpean.

Gaitzesten ditugu tripazaiak, hitz puztuak,
urrearen harrokeri lotsagarriak,
suertearen karta gaizki errepertituak,
intsentsuaren ke sendoa aberatsei.
Orain jaunen herria zirtzila da,
bere gorrotoan makurtzen da zakurrak bezala,
zaunkaz urrutitik, hurbilagotik jasango du makila
eta, bustinean barneratuz, heriotz bideak jarraitzen.

Kantaz ilunean eraikitzen ditugu
ametsaren horma altuak, bisuts honen abaroan.
Gauaz iristen da iturri askoren zurrumurrua:
izuari ateak itxiaz goaz.

Ilunean irauneraziz nago
 atea ondo hertsirik
 eta zakurrak loa galdurik
 lapur beldurraren aurka.
 Haizea marraskatuz entzun dugu
 gelditzen ez den ahoz

Aintzinako amets hostoak
 jaten zituen banan-bana.
 Jadanik oroitzak horzkatzen gaitu
 horzkada gogorrez.
 Sepharad, gure seme,
 adar lehordun arbola!

Sedaz egiten du hari luzea
 gure hil-oihaltzat.
 Baina behatz ehunginak
 artilaren beroa nahi dute.
 Oinaze handien isiletik
 sortzen da aske aldarria.
 Azken sufrikario honetan
 esperantzaz jantzirik.

Denboraren erdian,
 nire etxea gordetzen dut itzarturik.
 Giltzia emanen diot
 hurbiltzen den argiari:
 ibilitako gaua
 poliki-poliki egunsentia da.

XXVII

Esaten genuen: «Sepharad-go negua!
Menderatu ditugu iluna eta hizotza».
Baina udarako zeruak iristean,
non ez genuen egunsenti seinalerik irakurten.

Haizea gelditzen bada, arnasa entzuten dugu
lo atsedenean dagoen lurretik
amets nekez hau. Orain irtetzen gara
aterpetik toki soileraino, arriskuraino,
eta pizten ditugu
begirale suak gauean.

XXVIII

Geldiro dantzatu gara korruan,
zuen inguruan, udararen barean,
eskuak elkaturik, gerraren oihuak aurrentituz,
Sarón-go zeruaren dantza argiak.

Nork berezi ahal du lurra errautsetik,
nola libratu zezake denbora eta oroitzatik?
Mendi altu batzuk eta urezko eraztun
fin hau itsasoz Sepharad mugatuz.

Ez zaitezala saiatu iratzartzen bere amets zailetik,
urrutiratu zaite argi hotzpean beilatzerara.
Gaur hobeezinezko lotan ikusten dute
begiek eta zure gaua, herri zaharraren maitasunez.

Poliki poliki ahantzi ditugu
 eta bukatzen doaz
 dantzak eta kantak
 zeru zahar
 Sarón-go.
 Izuagatik hurbilduz dator
 artz
 dantzaren erritmoa.

Gurpila jiraka gelditu gabe.
 Eguzkia irten eta sartuz
 eta argipean
 ez dago inoiz ezer berririk.
 Liburua irakurtzen baduzu
 Predikariarena,
 erraza idurituko zaizu
 dena jakitea:
 norbere burua engainatu nahi duenak
 egin dezake minik gabe.
 Orain «arratsa» diogu,
 gero esango dugu «goiza»,
 baina betiko galtzen gara
 gau berean.
 Orotarikoak dira gizonak,
 orotarikoak arrazoiak,
 ametsa bizi zaigu
 maitasun batena
 eta laster hazten zaigu
 heriotzaraino.

Orotarikoak dira gizonak eta orotarikoak hizkuntzak,
eta izen asko komeni izan dira maitasun batentzat.

Zilar zahar eta hauskor biguna berandu itzultzen da
alorretako argian gelditurik.
Lurra bere mila belarri findun tranpaz
txoriak katibu dituela aireko kantuetatik.

Bai, uler eta zure egin, baitere,
olibondoetatik,
altu eta apal haizeak preso duen abotzaren egia:
«Orotarikoak dira hizkuntzak eta orotarikoak gizonak,
eta izen asko komeniko dira maitasun batentzat».